

SOLUZIOAK ABENDUA

Hona hemen abenduan Euskal Herriko herri desberdinetako umeez beraien toki aldizkarietako jolasen txokoan aurkitu dituzten jolas desberdinen soluzioak.

Bilatu beraz, guztien artean zure herriko aldizkarian proposatu zaizkizun jolasei dagozkienak eta dagoen aukera zabala ikusita, gehiagoren gogoarekin geratu bazara, zure aldizkariaren hurrengo alea iritsi bitartean jolasten jarrai dezakezu gure [jolas parkean](#).

ISPIJUAN
Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Zortzi dira.

Marraztu eta Margotu
Apaindu Gabonetako izeia. Izan zaitez ausarta eta jar itzazu inork esperoko ez lituzkeen elementuak.

DOMINOAN
Bete itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.

Begira! Harra katua neguari begira. Osatu lauki zuriak BEGIRA hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, E, G, I, R eta A). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

B	A	I	G	E	R
R	G	E	A	B	I
E	R	G	I	A	B
A	I	B	R	G	E
I	B	A	E	R	G
G	E	R	B	I	A

PUZZLEA
Puzzle hau osatzeko bederatzita pieza behar ditugu, baina hemen 12 daude. Zeintzuk dira txarrak?

Hiru, bi, bat

Gauza gehienak hiru aldiz ageri dira. Gauzetako bat, aldiz, behin bakarrik ageri da. Margo ezazu.

Handitik txikira

Ordena itzazu izotzetako patin hauek, handienari 1 zenbakia emanaz, eta txikienerari 8.